

1. JARDUERA

Bi zerrenda daukazue hemen. Batean arloari dagozkion helburu orokorrak daude; eta bestean, berriz, oinarrizko gaitasunak. Azter itzazue biak eta ikusi nola islatzen diren gaitasunak arloaren helburuetan.

HELBURU OROKORRAK

1. Errealitatea azaltzeko eskemak egitea. Kontzeptu, printzipio, estrategia, balio eta jarrera zientifikoak erabiliko dira gertakari natural nagusiak interpretatzeko, bai eta gure gizartean garantís handiena duten garapen eta aplikazio zientifiko eta teknologikoak kritikoki aztertzeko ere.
2. Problema ebaztea eta ikerketa txikiak egitea, bakarka nahiz taldean, zientzien prozedurekin koherentzia duten estrategiak erabiliz. Horretarako, estrategia hauek erabiliko dira, besteak beste: argibide-hipotesiak egitea, datuak lortzea eta datu horietatik emaitzak eta ondorioak ateratzea, iritziak eman ahal izateko. Iritzi hutsak frogatu jakin batzuetan oinarritutako ebidentzietatik bereiziko dira horrela, testuinguruan jarrita lantzeko interes pertsonaleko edo sozialeko egoera erreala, eta erabaki arduratsuak hartu ahal izateko.
3. Informazioa lortzea gai zientifikoei buruz, hainbat iturri erabiliz -besteak beste, informazio- eta komunikazio-teknologiak-, eta informazio hori erabiltzea. Informazioa erabiltzeko, edukia baloratuko da, eta gai zientifikoei buruzko lanak oinarritzeko eta orientatzeko eta gai horietaz jarrera pertsonal kritikoki eta oinarrituak hartzeko balio duten aztertuko da.
4. Zientziei buruzko informazioa duten mezuak aktiboki eta kritikoki interpretatzea, eta mezu zientifikoak sortzea. Mezu horiek sortzeko, behar bezala erabiliko dira ahozko hizkuntza eta hizkuntza idatzia. Beste zenbait idazkera- eta irudikapen-sistema ere erabiliko dira, zehatz komunikatzeko eta zientzien eremuko azalpenak eta argudioak emateko.
5. Giza organismoaren ezaguera zientifikoa erabiltzea. Horretarako, gorputzaren funtzionamendua azalduko da, bai eta osasuna zaintzeko baldintzak ere, zaintza- eta arreta-ohiturak garatzeko eta norberaren ongizatea eta taldearena handitzeko.
6. Ekosistemen funtzionamenduari buruzko ezaguera zientifikoa erabiltzea. Sortzen diren elkarrekintzak azaltzen dira, bai eta oreka eta oreka nahasten duten alderdiak ere, natura baloratzeko, kudeatzeko eta naturaz gozatzeko, zientziak eta teknologiak gizartearekin eta ingurumenarekin dituzten elkarrekintzak kritikoki aztertzeko, eta garapen iraunkorraren alde aktiboki eta arduraz parte hartzeko.
7. Zientziaren izaeraren, probak eta sorkuntzak egiteko izaeraren, ezaguera erabiltzea. Dogmatismoak gainditu zituzten eztabaida handiak eta historian zehar egondako iraultza zientifikoak aztertuko dira, ezaguera zientifikoak gizateriaren kultura-bilakaeran, premien erantzunean eta bizi-baldintzen hobekuntzan izandako garrantzia ulertu eta baloratzeko.

OINARRIZKO GAITASUNAK

- a) Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.
- b) Matematikarako gaitasuna.
- c) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- d) Informazioa tratatzeko eta teknología digitala erabiltzeko gaitasuna.
- e) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
- f))Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna .
- g) Ikasten ikasteko gaitasuna
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

